

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 980

*HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: 7/2022 Ebazpena, urtarrilaren 24koa, Santa Marina Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Salvador Serrano Moya jauna PEAZeko gainbegirale izendatu den, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitalean.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua ezartzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden akatsak edo omisioak, testuingurutik argi eta garbi ondorioztatzen badira eta dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, baina horiek zuzentzea komenigarritzat jotzen bada, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrearekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, agindua eman duen organoak hala eskatuta.

Santa Marina Ospitaleko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 24ko 7/2022 Ebazpenean horrelako akatsak aurkitu dira. Ebazpen horren bidez, Salvador Serrano Moya jauna izendatu zen, izendapen askez, Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko PEAZeko gainbegirale. Ebazpen hori 2022ko otsailaren 1eko, EHAAko 22. zenbakian argitaratu zen.

Honela dio:

«Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren, bai eta izendatzeko proposamena ere, eta Javier Serrano Moya jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak ikusita, bidezkoa da Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko PEAZeko gainbegirale izendatzea, izendapen askez.»

Honela jarri beharko luke:

«Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren, bai eta izendatzeko proposamena ere, eta Salvador Serrano Moya jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak ikusita, bidezkoa da Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko PEAZeko gainbegirale izendatzea, izendapen askez.»

Eta hurrengoa dion lekuan:

«Lehenengoa.– Javier Serrano Moya jauna Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko PEAZeko gainbegirale izendatzea.»

Horrela jarri beharko luke:

«Lehenengoa.– Salvador Serrano Moya jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitaleko PEAZeko gainbegirale izendatzea.»